

GOIERRITARRA

GOIERRITARRA HILABETEKARIA. Goierriko euskaldunon aldizkaria.

7.-8. zenbakia/ 1990ko uda. 200 pzta.

ale espeziala: UDA
Irakur **ABENTURA**



Komikia

CORTO MALTESE
I r l a n d a n

Literatura

• • •

GARAI BATEKO GOIERRIKOAK:
ORMAIZTEGIKO ZUBIPEKO HIRU PERTSONAIA.

Dozenerdi bertso



NARRAZIOAK



ETA "FETITXE"



GAUR-GAURKOAK

Plan on bat baduzu gogoan kontutan izan Kutxa.



**Si quieres un buen plan
cuenta con la Caja.**

Para que encuentres el Plan a tu medida, sólo tienes que decidir cuál o cuáles te convienen más.

Para que en el futuro, las cosas salgan como tú las hayas previsto.

PLAN DE PENSIONES

PLAN DE AHORRO ASEGURADO

PLAN DE AHORRO

Zure neurriko Plana aurki dezazun, zein edo zeintzu diren zuri hobekien datozkizunak aukeratu besterik ez duzu.

Etorkizunean, gauzak zuk aurrikusi bezala gerta daitezen. Zuk nahi duzun bezala.

PENTSIO-PLANA

AURREZKI-PLAN ASEGURATUA

AURREZKI-PLANA

**AURREZKI-KUTXA
MUNIZIPALA**



**CAJA DE AHORROS
MUNICIPAL**

GOIERRITARRA HILABETEKARIA

Bertako txalaparta eta albistaria

Argitaratzailea: «Goierritarrak» Kultur Elkartea (Legalizatua). Dorre-etxea, behe (Correos azpia), alhondiga, 3. lokala. Tfna: 889612. 124 posta kutxa, Ordizia.

Orain arteko Udal-Herri laguntzaileak Beasain, Idiazabal, Olaberria, Lazkao, Ordizia, Itsasondo, Legorreta, Ikaztegieta, Gaintza, Zaldibia, Arama, Ormaiztegi, Gabiria, Ezkio-Itsaso eta Segura.

Erredakzioa: Josune Agirre (publizitate arduraduna), Jon Mikel Arano, Aitor Larrañaga.

Emaketazioa: Goierritarrok

Ale honetan kolaboratu dute: Ramon Ugalde, Tere Irastortza, Andoni Sarriegi, Xabier Mendiguren, Xabier Narbarte, Ateari, Mikel Aramendi, Aitor Zugasti, Arantxa eta Lorea Agirre, Garbiñe eta Elisabet Ezkurdia, Patxi Zubizarreta eta Koldo Zubeldia.

Gure eskerrik beroenak: Era batera edo bestera laguntzen diguzuenoi, bai eta aldizkariaren saltzaileei, beharrezkoa dugun publizitatea eskaintzen diguzuenoi eta nola edo hala parte hartzeko irrikitan zaudetenoi.

Fotokonposizioa: ANTZA
Inprimategia: GERTU
Lege Gordailua: SS 926/89

GOIERRITARRA aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

GOIERRIZ KANPOKOEN INTERESEKO: ALE HAU EZ EZIK, AURREKO SEIAK ERE ESKATU LITEZKE KONTRARREN BOLTZOZ EDO POSTORDAINEZ (GAURKOTASUN HANDIRIK EZ DUTE GALDU GAI ASKOK) ORDIZIAKO 124. POSTA KUTXARA IDATZIZ EDO TA GURE TELEFONORA DEITUZ.

GAUR EDO BIHARKO
KOLABORATZAILEEI:
GURE TELEFONOA, 889612.

**EROS, IRAKURRI
ETA ZABALTZAZU
GOIERRITARRA**

Irakurleari:

Udan zer irakurri izan dezazun asmoz burutu dugun 7. argitarapen ez-ohizko honekintxe bukatzen ditugu «Goierritarra» aldizkariaren I. etapaldiko lanak. Nahiz era oso deserosoetan aritu garen orain arte eta giro okerrari aurre egin behar izan diogun, bide batzu urratu ditugulakoan gaude. Azkenaldian zenbaitzu «eskandalizatu» omen eta jantziurratzeren bat edo beste ere izan den arren, aurrera goaz. Luze joko luke eginiko ibilbidea eta hurrengo etapan zer egin nahi dugun esplikatzeko. Labur esanda:

1.500/2.000ko tiradako aldizkaria, hamabostekaria ahal baltz, debaldekoa.

Kontu guzti horiek txosten batean azaldu ditugu («GOIERRITARRA Birmoldatzeko proiektu berria») eta hainbat jenderi, prentsari, Bailadako Institutzio eta Udalei, Diputazio eta Jaurilaritzari luzatu.

Dirulaguntzen eta erremedioen zai geratzen gara, guztia- ren beharrean baikaude. Ez genuke betirako adiosik esan nahi, hurrengo kurtso arte baizik. Aio!

**«Goierritarrak»
Kultur Elkartea**

Joxe Azurmendi zegamarraren aspaldiko «Manifestu atzeratua»-tik. Koldo Izagirre erdaratzaile.

Manifesto tardío

*Te escribí un panfleto
Para que, si quieres condenarme
No cometas injusticia.*

I

*Nuestro pueblo no tiene historia.
Es pobre. Ni tiene más que
un par de pobres piratas
algunos sufridos obreros
muchas fronteras sin sentido
mil desgracias. No es poco.
Una cortina de agua
cierra nuestro calendario.
No se encontrará nuestro imperio
en los grandes libros de la historia universal.
Y el vasco estaba conforme.
Y quiso ser libre.
Pero ser libre
es algo francamente difícil
para el desgraciado pueblo
que no ha tenido un Marx
o un 1789.
¿Con qué va a pagar?
Es francamente difícil.
Porque nosotros sólo tenemos
un par de piratas, algunos sufridos obreros,
muchas fronteras difíciles y poco más. Pura calderilla.*

*Pero queremos ser libres,
qué culpa tengo yo.
Y aunque tras un cheque falso
nos han inventado un árbol de Gernika,
como si querer ser libre fuese pecado,
como si necesitásemos alguna razón.
Nosotros, simplemente, queremos ser libres.
Queremos serlo, sin más.
Porque éste es el último engaño:
Nos han hecho creer
que tenemos que justificar el querer ser libres,
antes desde fuera, y ahora desde dentro.
(...)*

*Como si para ser libre
hiciera falta permiso de nadie...
Como si necesitáramos argumentos de nadie para ser pueblo.
Como si ellos
nos trajeran la libertad.
Y no por ellos,
sino contra todos ellos
queremos ser libres,
contra toda nuestra historia,
queremos ser libres.
(...)*

egin oria-urola garaia

Zure herriko informazioa
zehatza, zuzena, egunerokoa
Nabarituko duzu!

INFORMAZIOA ETA PUBLIZITATEA: KORREO KALEA, 14, Tfnoa: 67 54 11 — 55 TOLOSA

XR2i

FORMULA BERRIA



MUJICA
Automobilak



- FORD Mekanika-Segurtasuna: Zure Ford berria babesten duen garantia ez da bukatzen 12 hilabeteko epean, zorerrek luza dezakezu babes hori 48 hilabeteetara, dituzun beharren arabera.
- Herdoilaren aurkako 6 urterako garantia
- Bizia duen arteko garantia
- Merkatuko garantiarik onena.

Errepide Nagusia, 1 • 419 Km.a • Tfnoa: 88 74 00 • BEASAIN

Aralarko extraterrestreak

Txindoki argi bitxi batzu agertu zirela eta, abiatu ginen zer ote zen ikustera. Entzunak ginuzen «Ovni»ren kontuak eta baita ere Siberia aldean extraterrestreak ibili zirela bueltan orain dela denbora gutxi. Horrelako zerbait izan zitekeela pentsatuz joan ginen mendira, argien dizdiraz gidaturik eta bidean izerdi pixka utzi ondorenean, hara non aurkitzen ditugun, Alotza aldean, hiru tipo ankaluze, buruan kaskoa eta, jantziera bitxia harkaitz batzutan eserita, gure zai baleude bezala. A

Beraiekin harremanetan jartzekotan, indio pelikuletatik ikasitako keinu bereziak egitera jo genuen, baina nun eta nola, bapatean hasi zitzaizkigun euskeraz, Aralarko edozein artzaia egingo luken modura. Gure harriduraz kontu harturik, kontatu ziguten bere ibileraren berri, Euskal Herria ezagutu zuten aspaldiko garaietatik hasita.

Harri aroa zen noski hemen, extraterrestreak lehendabizi honuntz heldu ziren garaia. Lurraren zehar beste zenbait leku bisitatu ondorenean eta beste ezaugarri bezala bertako biztanleari Piramideak egiten irakatsi eta gero, Euskal Herrira ailegatu ziren eta ez ziren ausartu hemen beste horrenbeste egitera, kontuan harturik artelana herrian integraturik zegoela ordurako, harpeetako margoetatik, trikuharrieta-
ra eta kromletxetara.

Ez zuten alajainako esperientzia izan aurreneko bixitan, taldekide batek desertatu egin bai omen zuen eta bertako herritarrekin nahastu, besteek jentilbaratza deritzaion lekuan bere basea (1) ipini zuten bitartean. Ihes egin zien tipo hori, Olenztzero izendatua izan zen, extraterrestreak diotenez.

—Bere bigarren bisita, kontatu zitugenez, emankorragoa izan zen. Katez loturik omen zegoen giza gaxo bat Altxueta inguruan, eta pizti baten mende bere azkenak ematera zihoanean, juxtu heldu omen zen extraterrestre hauetako bat bere laser bastoiarekin piztia akabatzeraz. Salbatutako gizon hura, bertako en artean nahiko ospekoea izanik, arrakasta handia hartu zuen ekintzak.



Jaungoikoak bidalitakotzaz hartu zituen eta leku hartan oraindano zutik dagoen etxea eraiki.

Hauek entzunik, galdetu genien ia zertarako etorri oraingoan eta zerbait adierazi nahi ziguten lurtarreri eta bereziki euskaldunoi. Hiruretan hiltunena agertzen zenak hitza hartu eta honako hau esan zigun:

*«Binburum plit plast hanpasteri-
fort murikorkita berpinporta han kis
kol ingurunuli firsaulta....etab.»,* euskaraturik honela geratzen dena:

Galaxi hartako ixiltasunetik hemengo zaratara etortzea, batez ere, hiri haundietan izaten dena, ez zaigu gustatzen. Horregatik geratu gera Aralarko gailurretan. Hala ere, ikusi dugu ez dela lasaitasunik hemen, dena pistaz josirik baitago, eta noiz nahi kotxeak haruntz eta honuntz. Artzaian txaboletan ere telebistak ipini dira eta egazkinentzat

pista ere jarri dute. (Guk gure plati-
luarentzat ez dugu horrelakorik be-
har).

Putzu haundi bat egin dute, lehen ez zegoena. Ate eta langak arrespetatzen ez direnez, aurki leku honek Kontxako hondartza emango du. Aldiz aldi zuhaitz gutxigo dago eta, horrela, harkaitzak nagusitzen ari dira lar eta sarrietan.

Hinbat taberna dagoenez, ez luke Olentzarok orain herrira jeitsi beharko sudurra gorritzeko.

Jendeak, ingurugirokiko errespetoa erabat galdu eta edozein lekuan botatzen ditu plastiko eta zikinak. Kontuz ba. Lurrean dagoen lekurik ederrenetakoa duzue. Ez zazue hondatu !.

● Ateari (Zaldibia)

(1) ez da orain Beasainen dagoen «basea».

Esateko asko daukagu


Egunkaria

Udazkenerako
kalean

ETXE - ALAI JATETKEA

☎ 88 52 55

20248 ALTZAGA
(Gipuzkoa)



auto-eskola **ORDIZIA**

LA UNION Y EL FENIX ASEGURAK

Padre Urdaneta, 10
Tfnoa: 88 72 76

ORDIZIA

GARAJE "LAZKAO"



Renault
ZERBITZU OFIZIALA

Salmenta eta jatorrizko errekanbioak
kotxe konponketa orokorrean

San Prudentzio Auzoa, z/g. Tfnoa: 88 24 42 **LAZKAO**

GENERALI **Aseguroak**

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20 -Tfnoa: 88 87 02
20200 BEASAIN



AUTO ESKOLA

TELEFONOAK:

Lazkao: 88 72 99


Beasain: 88 18 96

GIPUZKOA



MUJICA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA



EGUZKI

Inprimategia

Nafarroa Etorbidea, 9

Tfnoa: 88 94 82

20200 BEASAIN

GURPIL

Bideluze Plaza, z/g. - Telf: 88 89 51

Nafarroa Etorbidea, 3. - Telf: 88 21 03

20200 BEASAIN

EROSKI **KAFETEGIA**

Pintxo hotz eta beroak
Eguneroko bazkariak

Tfnoa: 88 83 31

ORDIZIA

HIDALGO

BITXIDENDA • ERLOJUDENDA

LEGAZPI, 4
Tfnoa: 88 04 06

ORDIZIA

GARAI BATEKO GOIERRIN...

...a ze hiru pertsonai Zubipen!

Ormaiztegiko itsua

Jose Frantzisko Berasategi Lasa 1858 urteko azaroaren 15ean jaio zen Ormaiztegiko Mekola baserrian. Haurtzaroa Ormaiztegin pasa zuen, baina Karlistada gerratea zela eta, aitaren ordeztu, oraindik mutil koxkor izanik, kanpora joan behar izan zuen.

Ordurako mutil azkarra izango zen nonbait eta «las cuatro reglas» jakiteagatik kapitain edo kargudunen baten laguntzaile bezala jarri omen zuten. Nahiz eta gaztea izan ondo zaintzen zuen bere burua. Garai hartan fusilen bat izango zuen eta, lapurtu ez ziezaioten, izurritea zuen emakume baten gelan gordetzen omen zuen, han seguru egongo zela eta.

Prantxiskoren aita hargina omen zen eta noski, semeak bere zereginetan laguntzen zion. 17 bat urte zituela, aita beste lanen bat egitera joan eta «letxera» prestatzeko agindua utzi omen zion. Kare biizari ura bota zionean, honek irakin eta aurpegia erdiz erdi harrrapatu zion Prantxisko mutikoari, itsututa utziz. Arreba ere gertu egongo zen eta konturatuta buelta eman arren, bera ere pixkabat harrrapatu eta erdi itsututa gelditu omen zen.

Baina Prantxisko ez zen bere iluntasun munduan etsirik gelditu. Itsua izan arren, motela ez nonbait eta, filarmonika jotzen ikasi zuen, bai eta ahozko flauta, txilibitu, dultzaina... ere, gerora besteei berak irakatsiz. «Aur ta azi ao zabalik eoten giñen Eguerri, Urteberri eta Erregetan elizan jotzen zun doñu gozoak entzuten. Olakotan apaizek amar erreal eskupen jartzen zizkion».

Astigarragako Anastasia Telleriarekin ezkondu eta Etxeluzen, gero Itxune izena hartuko zuen etxean bizi izan zen. Bertan lau seme-alaba izan zituen: zaharrena mutila eta beste hiruak neskak.


Halako sendia osatu eta aurrera atera beharko zuen itsuak. Horretarako alpretak saltzen zituen. Juanito Kantiñasek zoruak, egin ondoren, itsuaren emazteak tela josten omen zien, batzuk bordatu eta guzti. Itsuak apretoi lokarriak jartzen zizkien eta erosleak, joaten zitzaizkionean, haurrak baziren, honela esaten omen zien:

«—Ze numero beazue? Aber, etorri zaiz onea. (Eskua gainean jarri eta...) —Aundie ein zea, zuk aundixamarra bearkoezu».

Eta ondoren neurriko apretak ateratzen omen zituen, bai eta dotore eta garrantia onekoak ere. Garai hartan ez zegoen zapatarik eta Eliztondon erositako txankoloen gainean jarrita jende gehientxona Itxuneko apretekin ibiltzen zen.

Baina hori ez zen itsuaren bizibide bakarra. Aulkiei anea edo zume antzekoak gaina ere egiten omen zien. Baratzetan oso trebea izango zen. Tomateak paridetan inoren laguntzarik gabe lotzen omen zituen. Han joaten omen zen baratzetan zehar ezer zapaldu gabe. Lorak ere kontu handiz zainduta, kamineroci lurra eskatu eta urtero berrituaz, zoragarriak mantenduko zituen.

Lehen esan bezala musika ere gogokoa zuen, bai eta berari fruitua atera ere. Garai hartan jendearentzat egunean bi edo hiru tren izaten omen ziren. Ordua iristean han joango zen



Ormaiztegi

itsuua estaziora, kaletik barrena batzutan eta, zubi azpiko bideskatik gehienetan, bainuetxetik bueltan. Noizbait bideskatik trenbidera atera eta errailak jarraituz joaten ikusi bide zuten, bere makila eskuan zuelarik.

Katez ezarritako ordularia erabili ohi zuen gerrian (kristalik gabekoa izango zen) eta okerrik gabe eramaten zuen eguneko ordua. Umeak sarritan joaten omen zitzaizkion ordua galdetzeraz.

Trenekoek oso gogokoa zuten bere soinu-agurra. Errepertorio zabala zuen, aidanez. Portugesak pasatzen baziren beren martxa joko zien, frantsesei «Marsellesa», Maria Cristina erregina bazen berriz martxa erreala. Azken honek gainera, Donostiara etortzen zen bakoitzean, bost pezetan ematen ei zion. Diru asko garai hartarako.

Nork ez zuen zubi haundia eta itsua zeuden herria ezagutzen? Herriar batek dioenez, behin Frantziara joan eta monja batzuekin zegoela, «Akordeoi-jole zahar bat dueneko herria» esan omen zituen.

Treneko jendeak, hari

entzutean, txanponak botatzen zituen eta dirua jasotzeko beti izaten zuen itsuak laguntzailearen bat, gehienetan alaba. Beti adi egongo zen, han edo hemen zaratarengatik zenbatekoa erori zen asmatuaz eta jasotzeko aginduak emanaz. Pixkanaka diru dexente ateratzen zuen horrela.

Orduan ez zegoen lapurrik. Itsuak geltokian «mesilla» antzeko bat zuen eta han gordetzen zuen bere soinua, giltzapean. Egunean zehar jende asko inguruan ibili arren, hurrengo goizean han aurkituko zuen bere sekulako soinua.

Udan, bainuetxeko jendea etortzean, kontzertuak ematen omen zituen. Oste-gun eta igandetan bazkari berezia izaten zenez, bainuetxe eta herriko bi fondetan soinua jotzen zuen.

Gizon atsegina eta lagunartekoa zen Patxi. Inoiz ez zen era txarrean ikusi eta bere joan etorrietan bakarrik moldatzen zen. Askotan ikusi ohi zen tabernetan musean jolasten eta horretarako bazituen berak prestatutako karta batzuk, er-tzetan seinal bereziekin.

Garai hartan Ormaiztegi-ko kaleetan broma giroa oso zabaldurik zegoen eta ezin broma hauetan itsua alde batera utzi. Behin, estazioko kantinan baxoerdi bat edaten ari zela, listor batek ezpainean heldu omen zion, hazi-hazi egin-da utzia. Hurrengo batean norbaitek zigarro papera bil-bil egin eta baxoerdi bota omen zion. Itsuak zer-bait sumatu zuenean, aurre-koa gogoratu eta baso eta guzti berehala bota omen zuen hurrengo.

Ihauteri egun batean itsuak eta bere lagun batek moxorrotzea pentsatu omen zuten; huntzez bata eta go-rodioz bestea. Bakoitza be-re moxorroz ondo estali, flauta eta txilibiaren soi-nua kanpora irten zedin tu-tu bat jarri eta zarata eginez atera ziren kalera. Bainue-txe aldetik behera zetozela, panaderiko Joxemiel bro-mazaleak bere ahuntzak as-katu eta «jare» eginda hun-tza jatera bidali zituen. Bai ederki izurratu ere itsuaren moxorroa!

Bitxikeri ugari gertatu zi-tzaion itsuari bizitzan ze-har. Gazteta chiztari ona izango zen gure pertsonaia eta, behin, arrebak barran pizti bat zegoela esan eta, Prantxiskok gehiago pen-tsatu gabe eskopeta hartu, arrebak erdi-itsuaren lagun-tzaz apuntatu eta sapelatsa seko bota omen zuen tiroz.

Beste behin, gau oso ilun batean Tuertone tabernan gabiriarren batzuk egongo ziren perian eguna majo pa-sa eta bueltan. Handik irten eta jo dute bada etxera joa-teko asmotan Sagasti Berri ondolik, baina lainoa non-bait eta ez zutela inola ere biderik aurkituko. Bueltan jeitsi dira eta itsuarekin to-po egin:

— Ba ain illun daula ta etxeko bideik ezin deu bi-llau.

— Nik eakutsikoizuet ba.

— Oi izango uke politte, itsuk guri etxea bidea eakustea!

— Eakutsikoizuet ba. (Hartu eta eraman ditu Sa-gasti Berri ondora)

— Baño nolaleike?!

— Ai gizajok! Netzako euzkik geyeneko eunek eta

illunenak, danak berdin di-ttuk. Eztiat ezer ikusten ba-ño nik beste gauz batzuk bazeuzkiat eta zuek etzeate gauz askokin kontuatzen. Emen, erreka onek dauken nearrotsa, zuek etzeate konturauko baño ni orrekin giatu nauk.

Itsuak, Mekola baserrian jaioa zenez, ondo ezagu-tzen zituen paraje haiek. Pasarte hauek broma ugari sorrerazten zuen jendea-rtan: «I, aittu al dek? Or-maiztegi-ko itxuk erbie bota emem dik?». «Olaberriko muttuk esantziak».

Dena dela, berak ere ba-zituen antzeko ataerak. Al-boko etxeko gizona, Etxe-konekoa, begi bakarra izan-go zen eta honela esaten omen zuen: «Bi etxetan bi gizon eta begi bat baka-rrik».

Apustuak ere gustokoak omen zituen eta, Ormaizte-gitik Salbatore auzora kox-kolak biltzen nor lehenago iritsi apustu egin omen zuen behin lagun batekin. Aurretik jendea zeramaten koxkolak jartzen, eta nola-koa izango zen jendearen harridura itsua lehenengo iristen ikusi zutenean! Ez zen txantxetakoa gizon hau!

Broma girokoa izateaz gain, gizon kezkatu eta jak-i-tuna zen. Itsuak oso gogo-ko omen zuen inguruko be-rriak jakitea eta besteek ira-kurtzen zizkioten egunkari eta aldizkarietako albisteak adi entzuten zituen.

Politikan ere bazituen bere ideiak, adi denez. Na-zionalista zen eta orain Mu-ruane taberna dagoen to-kian kokaturiko Batzokian asko ibiltzen zen. Bertan, behin gizon batek, abertza-lea izanik martxa erreala nola jotzen zuen galdetu omen zion eta honek, hate-ko beharrezko zuelako egi-ten zuela erantzun omen zion.

Ez zen ez itsua bere do-haiekin gosez hilko. Ikus-mena lortzeko esperantzatan Madrileko medikutan ere ibili omen zen, baina alperrik.

1931. urteko irailaren 18an hil zen 73 urte bete-zeko zituela.

«Kantiñas» anai-arrebak

Ormaiztegin Norteko fe-rrokarrileko zubia Eiffel-ek eraiki zuenean, jende de-xente etorri omen zen kan-potik. Langile batzuk etxeak alokatu eta besteak, ahal zuten moduan, txabola antzeko etxeetan jarri ziren eraikuntzak iraun zuen bi-tartean. Baina lana bukatu ondoren, sendi batzuk Or-maiztegin gelditu ziren eta hauen artean izango zen Tolosa aldetik etorritako «Kantiñas» sendia.

Sendi honek Kantiña ize-na hartu bazuen, txabola antzeko etxe batean bizi ze-lako izango zen; zubiaren garaikoa zen eta bertatik oso gertukoa. Gurasoak hil ondoren, Luixa eta Juanito Kantiñako etxe-bizitza ba-natan gelditu ziren; Luixa behekoan eta anaia goi-koan. Anai-arrebak, biak nahiko bereziak, ez ziren elkarren artean ondo kon-ponduko eta independentzi osoa zuten. Behin baino ge-hiagotan, gauzez, biak ere nahiko edanda, honela abesten omen zioten elka-rrik:

Luixak: «Ahora si que estarás contentón, mandri-lón, borrachón!». Juanitok erantzun: «Ahora si que es-tarás contentona, mandri-lo-na, borrachona!».

Bai, nahiz eta Ormaizte-giko jendearekin erderaz hitzegiteko aukera handirik ez izan, ondo menderatzen omen zuten hizkuntza hori biek. Herritarrek nahiko kultotzat jotzen zituzten, Luixa batez ere.

Luixa «Kantiñas»

Garai hartan bainuetxera etortzen zen jendeak asko estimatzen zuen Luixa eta, ia arratsaldero, bere etxe aurreko petrilean eserita handiki hoiekin tertulian ikus zitekeen. «Apenas ze-goen señora Luisari saludoa ukatzen zion bañistarik». Ez ziren nonbait bere kira-tsarekin izutzen. Tabako paketeak ere opari egiten omen zizkioten, erretzaile amorratua bait zen.

Hala ere, herriko jendea-ren artean bazegoen erreze-loz begiratzen zuen jendea. Nondik norakoa zen halako hitz jarioa zuen sorgin itxu-rako emakume hura? Nola-tan zen hain ezaguna? Fe-rrokarrileko makinista ge-hientsuenak ere ezagutzen omen zuten. Luixa sarritan ikusia izango zen zubian txilibitua jo, tren gelditu erazi eta makinistaren kabi-nan Madridaldera joaten.

Garai batean emakume txukuna izango zen, baina estrafalaria eta berezia beti. Denborarekin zabartasunak irabazi eta oso narratsa bi-hurtu zen. Sorgin famak funtsik zuen ala ez baieztza ezina da, baina itxura bere-zia begibistakoa izango zen:

«Emakume txiki eta me-hea, urteek azkenerako okertuko zutena. Okotz lu-zea, hortzik ez eta beñ zi-garroa txorta ahoan. Azka-zal luze eta zikinak, painue-lo bat buruan, gorputza za-kuzko jantziz ondo estali gabe, alpretekin negu eta uda eta, galtzerdirik gabe gehienetan».

«Ormaiztegi-ko itsua» bat izan munduan eta hura artetsu.



«Sasi guztien gañetik eta laño guztien azpitik or nun-baitetik azaldutakoa zala ematen zun», diote ezagutu zuten emakume batzuk.

Estazio eta kanposantu aldetik behera gauzez animak ikusten zituela esaten omen zuen, jendeak farolak ez zirenik dudari jartzen ez bazuen ere. Ilargiarekin hitzegin ere egiten omen zuen. Behin, mahats parra bati gora-beheretan ari zela zera esango zion ilargiari: «Zuk, mundu guziari argi eitten diozun orrek, nola ez dezu adar txiki ori ikusi?».

Usoekin ere oso erlazio berezia zuen, «txubi-txubi» egin orduko inguruko uso guztiak bere ondora erakartzen omen zituen. Seguruasko herritarren bat baino gehiago ahaleginduko zen formula hori erabiltzen, baina ez zuen Luixak adinako emaitzarik lortuko. Dohai bereziren bat bazuen.

Dena dela, sorgina izan ala ez, bizibideren bat behar zuen gure Luixak. Badirudi hasieran oso ikusgarria zen jostailudenda bat jarri zuela bere etxean, kristalezko bitrinaz josita eta saltzeko gauza asko zituela. Baina gerora, zabarkeria zela eta dendarekiko ardua ere erabat galdu zuen, oso zikin eta erdi hutsik edukiko zuelarik. Kakauesak ur preskotan, haziak, ihauterietako paper-txoak, suziariak, e.a. salduko zituen.

Herriko gazteek oso gogokoa zuten Luixaren dendara joatea, baita negozio onak egin ere. Bat tratuan ari zen bitartean besteak ez-kutuan gauzak harrapatzen ibiltzen ziren; zerbait erosten bazuten ostutako beste zerbait ere eramango zuten gehienetan beraiekin.

Hala ere, Luixa oso gustora erlazonatzen zen gazteekin, mutilak baziren hobe. Sarritan kontatzen zizkien hauei bere gaztetako kontuak eta, parajaren bat bixitara joaten bazitzaion, argia itzalita aritzen zen haiekin elkarriketan.

Ba omen zen herrian Luixaren etxera sartu-irten asko egiten zituen mutil koadrila bat. Baratzeko la-

netan lagundu, kontukontari aritu, edo beste denborapasaren batean denbora ugari igarotzen zuten. Luixa asko poztzen zuten bixita hauek eta, behin baino gehiagotan tertuliari punttua hartu, zeharo animatu eta honela abesten omen zien:

Allí en La Habana seré
serrana TURUTUTU

Allí en La Habana me
muero yo TURUTUTU

Allí en la Habana una
rubita

Una rubita me consumo
TURUTUTU

Hau abesterakoan TURUTUTUarekin akonpainamendua egingo zioten gazteek, azken TURUTUTUa oso ozenki bota eta parre algaran jarriaz. Kanta liberalak ere abesten omen zizkien:

Somos liberales de color
negrito

somos liberales de este
pueblecito

somos liberales y derramaremos

toda nuestra sangre por
la libertad

Republicana soy y seré
y a mi partido
y a mi partido defenderé
A mi me gusta la libertad
¡Viva el Partido Liberal!

Dena dela, gazte hauek bixitari probetxua ateratzen ere bazekiten eta, karakolak harrapatzen ari zirela esanda, etxe ondoko pikuondo eta mahatsondoa ondo garbitzen zioten, poltsikoak majo beteta eramango zituztelarik. Luixa

asko haserretzen omen zuen ume edo gazteren bat pikuak lapurtzen ikusteak: «Ez diazue nei pikuik jango! Kristok kalte ingoizue onea etotzen bazeate!».

Baina behin eta berriz errepikatzen zirela ikusirik «Matias Txistu»-ri deitu eta pikuondoa ipurdi-ipurditik bota erazi omen zion. Berak ez zuen aurrerantzean pikurik izango, baina ezta umeek ere.

Haurrek jolasgai atsegina aurkitu zuten Luixa haserretu eraztean eta sarritan ikus zitezkeen bere etxe ondora harriak botatzen.

Emakume hau goizean berandu jeikitzen omen zen eta, normalki, arratsalderarte ez omen zen kalera ateratzen. Siesta lasai botatzea gustatuko zitzaion eta, behin, errekreoa zela eta umeak bere etxe ondoan jolasten ari zirela, iskanbilaz nazkatu eta txixez betetako orinalkada bat bota omen zien leihotik behera, neska bat erabat busti zuelarik.

Dena den, noizean behin haurren artean banatzeko goxokiak ere bidaltzen omen zituen eskolara, maistrak eskatuta lanen batzuk egiten zizkiotenean-edo. Zenbaitek, Luixaren garbitasun ohiturak ezagututa, nazkaz, jan ezinik uzten omen zituen goxokiok.

Beraz, haur, gazte eta zaharren artean zeresan pranko sortzen zuen Luixak. Batzuegan beldurra, beste batzuegan errezeloa eta, gehienengan, sinpatia sortuko zuen, herri osoan

ospetsua izatera iritsi zelarik.

Luixak komunioa urtean behin hartzen zuen, Ama Doloretako egunean, pazkoazkoa egiteko asmoz. Egun handia zen hori Ormaiztegin. Ospakizunaren antolatzailea Joxe panaderikoa izan ohi zen. Honek, suziria botaz, Luixa elizarako atera zela adierazten zuen. Kanean zehar alfombra prestaturik egongo zen eta han pasako zen Luixa bere jazki xelebreak arrastaka zituela, trapu zaharrak jantzita baina buruan mantila zuela. Bere aurretik mutil koxkor bat joaten zen, eskuetan Luixaren belaurperako kojina eramanez. Elizako zeremonia ikusgarria izaten omen zen.

Emakume honen inguruan dena zen broma. Bere heriotzak ere, heriotza guztiak bezala samingarria izan arren, ondoren xelebrea izan omen zuen. Badirudi bi herritar, Salustiano eta Juan, gauean zehar gorputza zaintzeko eskeini zirela. Bi lagun hauei txurruta asko gustatuko zitzaion eta, nahiz eta gorputza aurrean eduki, denborapasa tragu dextente hartu omen zituzten. Erabat mozkortuta ohe azpian lo aurkitu zituzten adi denez txanda egitera joan zirenak!



Ormaiztegin Eiffel-ek eraikitako zubia, Gerra zibilean puskatan ebakia izan eta berriro altxatuko zena.

Garai bateko pasadizoak

Juanito «Kantiñas»

Luixaren anaia Juanito ere oso famatua izan zen Ormaiztegiko herrian. Pertsonai hau garai hartako egunkari saltzaile eta alpreta zoru egile xelebrea genuen. Ez zen haundia izango eta, sudurpeko bibote eta guzti, beraneanteren batek opari egin zion lastozke sonbrero zahar batekin ibiliko zen beti. Egunkariak bost xentimotan saltzen omen zituen eta eguneko ordurik gehienak bizibide hontan pasako zituen. Dena den, ez zuen gehiegi irabaziko, arreba bezala nahiko narrats ibiltzen bait zen.

Bakarrik bizi zen, nahiz eta ezpainetatik zigarro txorta kentzen ez zuen arreba Luixa teilape berean egon. Jakin ahal izan dugunez, Juanito gizon ezkondua zen, ezkontza-bizitzak une labur bat iraun ez bazion ere. Beasainen ezkondu dira eta senar-emazteak Lazkaora bidean zihoazela haserretu eta han bukatu omen zen dena. Juanitok, Ormaiztegiara itzuli eta berriz ere bakarrik bizi izaten jarraitu zuen.

Gizon alaia eta lagunartekoa, gehiegi ez jateagatik-edo, apur bat edan orduko «lari-lari»ka hasiko zen, baita inguruan festa sortu ere.

«Aizkorri-Aralar, trintxera-batalan, remisionem pecatorum nostrum, gaizto guztiak sartu dittezelazerrun!». Konjuro hau oso ahokoa zuen txispaturik zegoenean. Inoiz norbaitek «Eta onak zer?» galdetzen bazion: «Aa tontoa!, aiek ez dittek konjuro beharrik!».

Gaur egun belarri, ukalondo, belaun, ipurtalde e.a.ekin lurra ikuituaz dantzatu eta zilipurdika bukatzen den dantza ere bazekien Juanitok. Koadrilan jarri eta erdi-prantses, erdi-gasteleraz berak ematen zituen aginduak: «Un codé, otro codé un culé, otro culé...» eta denak lurrean biraka jartzen zituenean: «arriba mesié! rekin amaitzen zuen saioa.



Ormaiztegiko hainuetxea. Tertuliarako galeria bat.

Lehen otañonekoak bizi izan ziren Muxika etxean juerga orijinalak ere antolatzen omen zituzten. Gauez lagun batzuk bildu, hoi artean Juanito, eta tertulian ardo tragoxka batzuk hartuaz egongo ziren. Ondo beteta zeudenerako dantza moduko bat asmatu eta izugarritzko juergak egiten zituzten. Periodiko bat tiretan moztu, denak punta batetik lotu eta katekorratzez erre-na zen lagun bati lotzen omen zioten. Ondoren, bat pianoan jarri eta honela abestu:

«Muxangule, Maria parlevu, en mi vida no he visto un tonto como tu».

Hau kantatzen zuten bitartean doinua markatuz borobilean ibiliko ziren, errena dantzan jarreraziz. Kandela bati su eman eta errenak zeramatzan periodiko tirei su ematen ahaleginduko ziren, baina honen mugimenduak kandelako sua itzali egingo zuen nonbait eta orduak igaroko zituzten ahalegin hauetan.

Behin batean, bere egunkariak eskuan dituela, joan da Juanito lehen Nartxixone eta gaur Maixune deitzen diogun etxe aurrera. Hau, argizaria lantzen ari den lagun bati adarra jotzen hasi da. Honek berriz, berriketan ari direla, eskuan duen espatula argizari urtutan sartu eta sudurpeko biboteetan igurtzi du Juanito. Jakina, kanpoko haizearekin bapatean gogortu zaio

argizaria eta bibotea nola geldituko zitzaion esan beharrik ez dago. Juanitok ez egitekoren bat egingo duela eta hango iskanbila! Esku-hutsean burrukan hasteko gauza ez dela konturatu-eta-edo, su eta gar jo du etxera. Ahal duen bezala bibotea moztu eta, eztena eskuan duela, irten da etxetik iseka egin dion lagun horri bizia kentzeko erabaki osoz. Eguerd ingurua izan eta laguna etxera bidean harrapatu. Horretan, ekin dio Juanitok:

«Alperrik abill, gaur ez aiz emendik pasako, ezten onekiñ garbituko aut!», deihadarka.


«Motell, sudurpeko ille batzun gorabera gizona ilko al dek ba? Mantsotu ai, litroerdi bat eangodiau alkarrekiñ ostantun eta gaurkoatik barkaiak beintzet!».

Arrazoi hauek pakotuko zuten agian gure gizona eta: «Aizenan semea aizelako uzten diat, ez-ittekon bat ingo nian bestela!» esanaz, elkarrekin litroerdia edatera sartu eta bukatuko zen haserre.

Umoreak urte askotan iraun zion Juanitori. Bere bizitzako 76 urtetan zehar xelebrikeriengatik ezaguna egin zen gizonak, Kaietana delakoaren etxean hil eta ormaiztegiarron artean kontatu diren hainbat istorio polit utzi zituen.

**Garbiñe eta
Elisabet Ezkurdia**











Hugo Pratt

Itzultzaile: Jon Mikel Arano

GOIERRITARRA-11













ZEREN BILA
HABIL IRLANDAN?



LEPRIKANOAREN URREZKO
LAPIKOAREN BILA...

ETA NOLA
AURKITUKO DUK?



IBAI-ERTZEAN NESKATXA
BAT NIGARRETAN IKUSTENDUDAN
EGUNEAN AZALDUKO DA...
SINN FEIN... GUBIOK
BAKARRIK...

SINN FEIN... GU
BIOK... ONGI ET
RRI IRLANDARA,
CORTO MALTESE...



SEAMAS,
O'HOGAIN
NAIZ...

OGAN NAHI AGU
BADUK... DUELA
BI ASTE JASO
GENIAN
HIRE MEZUA...
NOR IZAN DA?



O'SULLIVANEN AUXILIARRAK AFUSILATU ZUTEN...
ASTE PARE BAT IZANGODA... IRLANDAR IRAULTZAREN
SINBOLOA ZEN PAT FINNUCAN GUREZAT...
BAINA GOAZEN HEMENDIK...



PADRAIC PEARSEK 16. EAN GIDATUTAKO ALTXAMEN DUAREN
ONDOREN EZ ZEN INOLAKO AKORDIORIK ERREBELDEEN
ARTEAN... PAT FINNUCAN EK BAKARRIK
ASMATU ZUEN HAVEK BILTZEN ETA
KONZIENTZIATZEN... BERE HERI-
TZAK TINKOAGO BATU DITU ORAIN...

NONDIK ATERA
DIRA O'SULLIVAN
MAJORRAREN
AUXILIARRAK?



INGELEASEK ORDAINDUTAKO
MERZENARIOAK BADIRA
GEURE ARTEAN ERE...
O'SULLIVAN DA HONETAKO
BAT. GAINANTZEKOAK SOLDADU
OHIAK. MAKINA BAT IZANGO
DA GERRA AMAITEIRA-
KO EUROPA...

NOR DA ORAIN SINN FEIN-EN
BURUZAGIA?



SEAN FINNUCAN, PAT-
ANAIA... GOAZE BERA-
RENGANA... HORI DA
BERE ETXEA.







GAUR GAUEAN EJEKUTATUKO DUTE TIM.
GREEN BRIGADEKO I.R.A. RI EMAN BEHAR ZAIO
BERRIA... OGAN, MIK ERASOTUKO DUKINGELES
ESKOLTA
GREED
ROAD-EAN



ERASO METODO BERRI
BAT ASMATU BEHARREAN
GAUDE... BURNI SAREE Z
ESTALI DITUETE HEUREN
KAMIOIAK INGELESAK...



LEHERGARRIAK ETA DINAMITAZKO
KARTUTXOAK ERREBOTATU EGI-
TEN DUTE...



HONA HEMEN MARRAZOENTZAKO
AMUAK. LEHERGAILUETAN JARTZEN
BADITUZUE ERANTSIRIK
GERATUKO DIRA...

SOLUZIOBIDE ONADA...
JOAN HAITEKE, OGAN...



AGUR, CORTO... ETA
BERRIZIKUSTEN EZ
BALDIN BAGARA,
ZORTE ON...!

KI ERE JOAN BEHARREAN HAGO, CORTO...
TORI GILTZA HAU...



GERA HADI HAN, HARIK
ETA HIRE IRTEERA GUZ-
TIZ PREST EGON ARTE...
BANSHEEK LAGUNDU-
KO DIK...



AGUR, SEAN... ETA
ESKER MILA...

LAISTER
ARTE,
CORTO!



BANSHEE... ESAIDAZU...
IZEN HORREK EZ
DAKAR ZORITXA
RRA IRLANDAN?

BAI, "BANSHEE" AK AU-
GURIO-TXARREKO SOR-
GINAK ZIREN...



...TOPATZEN ZITUZTENENTZAT... IBAI
BAT ZEHARKATZEN ZUEN ZUBI
BATEAN AURKITUZ GERO BATIPAT...





ETA ZUK, INGELESEI BAKARRIK...
AURRESA-
TEN DUZU
ZORTE
TXARRA?
ETA D'SULLIVANEN ANTZERA
HERRIA ETA IRAULTZATRAI
ZIONATZEN DUTENEI, NOS
KI... BERAU ETA PAT LAGU-
NAKIZAN ZIREN, GARAI
BATEAN...



HIRUKOTZ BIKAINA
OSATZEN GENU-
EN, HARIKETA
D'SULLIVANEKI
BERE EMATZET
IZAN NENDIN
ESKATU ZIDAN
ARTE...



MAITE NUELAKO
HARRO NENGOEN...
ERREBOLTA LE-
HERTU ZEN GERO
ETA INGELESARI
SALDU ZION
BERE BURUA...



ETA PATEKIN EZKONDU
ZIREN BERARI GO-
RROTO ZENIOLAKO...



BEHARBADA, BAINA BEREHALA KONPONDU
NINTZEN PATEKIN... LAISTER ULERTZEN
DITUZU GAUZAK ZUK,
CORTO
MALTESE...

EZ ZEN OSO ZAILA...
ETA ORAIN, BARNEA
HUSTUTZEKO NITAZ
BALIATU ONDOREN, ZE
ASMO DITUZU?



OHIZ BAINO DITTIN BAT GEHIXEAGO HITZ EGIN
DUT... EZ ZAIZU INOIZ GERTATU?

BAIETZ USTED DUT...
BAINA DEN BORA
ASKO IRAGANDA
ARKE NEKOTIK...



BERE ZAVRIAK
BAKARKA MIAZ-
TEN DITUEN ZAKUR
ZAHAR BATZARA...

POLIZIA INGELES BATEK JARRAI
TZEN GAITU... HOBEA IZANGODA
SOROAN BARRENA JOATEA...
MAITEMINDUTAKO BIKOTE BAT
GARELAKOAN GERA-
TUKO DA, AGIAN...



EH!
ITXOIN!



EZ HAIZ BANSHEE
O'DANANN AKASO?

EZ... NIK...
MOIRA IZENA
DUT...





O'SULLIVAN
MAJORRA!



NI DEITZEKO
AGINDUA
EMAN
DUZU,
KORONELA?



SEAMAS O'HOGAN, OGAN
ZERITZON ERREBEL DEAZ
OROTZEN ZARA? ONGI,
BADA... HIL EGINDA...



BERE TALDEAREKIN GREEN BRIGDE RUNTZ ZIHOAN
KONBOIA ASALTA-
TZEN ZUEN
BITARTIAN...

EZ ALZEN GAUR
GAUEAN EJEKUTA
TU IZAN BEHAR-
ZEN TIM BRE-
NNAN ESKOLTA
TZEN ZUEN
KONBOIA?



BAI, BAINA ALDAKETA-
TXO BATEKIN, TIM ETA
BERE ESKOLTAREN
ORDEZ LASTOZKO
MANIKI BATZU GA-
RRAIATZEN ZITUEN.
ETA GURE FUSILARI
EK O'HOGAINEN
TALDEA TXIKITU
DUTE IA...



ZORIONAK,
KING KORONELA...

BAI... GREEN BRIGDE
RUNTZ GINDOABTELA
ERREBELDEAK INFORMATU
DITVENARI ESKER...



DENBORA DA
PENTSATZEN MUELA
NORBAITEK...



GURE TROPEN
MOBIMENDUEN
BERRI ZUENEN BA-
TEK ABISATZEN
ZUELA I.R.A.-
REN BURUZA-
GITZA, EGUNDU
KO KALTEAK
ERAGITEN
ZIZKIGU-
TELARIK...



BI PERTSONA GINEN BAKARRIK
JAKINENGAINEN... HI ETANI...
NI IZAN EZ NAIZENEZ, HI IZAN
HAITEKE BAKARRIK...
O'SULLIVAN.










BADUK JAKITEKO
ESKUBIDEA...
BAINA ISTORIO
TRISTE ETA
ZIKIN BAT
DUK...

TRISTURAK
BESTERIKER
DITUT IKUSI
HELDU
NINTZE-
NETIK...



BENETAKO TRAIIDOREA
NIRE ANAIA IZANDA,
PAT FINNUCAN...!



NERONEK DESKOBIRITU NITU
EN KING KORONELA ETA
BERE ARTEKO ERLAZIOAK
ETA DUBLINGO GAZTELUAN IN-
FILTRATUTAKO O'SULLIVAN
INFORMATU NUEN...



ERIN DEZAKET ULERTU HALAKORIK...
BETIDANIK KONBATITU
ZITUEN INGELESAK
PAT'EK...



IRLANDAR ERREPUBLIKA BAINA INGELES URREAREN
BATETAN SINESTEN ZUEN... ERE SINESTEN ZUEN HALABER.
BERAK FUSILARAZI ZITUEN 1.916.
60 PARKOAKO ERREBOLTAN PARTE
HARTU ETA IHES EGITEA LORTU ZU-
TEN BUREZAGI IRAULTZAILEAK...



GETATZEN ZEN HEROI NAZIONALAREN
PAPERA ZUELA. INGELES KOROAREN AUR
KAKO BURROKAZEN
SINBOLOA.



TRAIIDORE BAT ZELA
JAKIN IZAN BALITZ...



AKABATUA LITZATEKE GURE
ASKAPEN MOGIMENDU
OSOA...



HORRELA... BERE ELIMINATzea ERA
BAKI GENUEN, INGELESAK AFUSILA-
TU ZUTELA ZABALDU ETA
SINESTARAZI...



KING KORONELA INGALATERAN
ZENENKO BIDAI BAT MEDIO
EN KARGATU ZEN HORRE-
TAZ O'SULLIVAN...



ETA HARREZKEROPTIK IZAN ZEN
BERE ABERKIDEENGATIK GORRO-
TATUA O'SULLIVAN... BERAU
IZANDA BENETAKO
HEROIA...

IRLANDAR HERRIAK BEHAR DU MARTIR BAT
ORBAINIK GABE IRAUN BEHAR DU PAT
FINNUCANEN IRUDIAK... HISTORIARA
KO GURE HEROIA IRANGODA...



NOR GEHIAGOK DAKI HONEN BERRI?




HIK HIL DUAN KING KO
RONELAK. BAZITEKEEN OGAN
EK HONETAZERBAIT SUS-
MATZEA, BAINA ENBUSKA
DAN ERORIDA... EZTA BAN
SHEE BEREEMAZTEAK SI
KIERA ERE... AGUR
CORTO... ONDARTZAN
AURKITUKO BUK
BANSHEE...



ENTZUN... MUSIKA DIRUDI... MERLIN KOBLEKARI MAGIKOAK
MORGANA LA FEYREKIN BATERA EZPATA ENKANTATU-
REN BILA ETORRI BENEAN
ENTZUN ZEN BERBERA...







LA UNIÓN Y EL FENIX

ASEGURUAK

BEZALAKO KONPAINIARIK EZ DUZU INON AURKITUKO.
ZERBITZU-AUKERAN ETA SEGURTASUNEAN BERDINIK EZ DU.

JOXE TELLERIA

BETI PREST DAUKAZU ZURE ARAZO GUZTIAK KONPONTZEKO

Aseginolaza Anaiak, 1

Telf. 80 12 20 - 80 11 22

Z E G A M A

Kale Nagusia, 27

Telf. 88 26 43

B E A S A I N

F e t i t x e

Informazioa zuzena zen. Aurre-lanak primeran atera ziren. Esandako orduan agertu zen, furgoneta bakarra, eta behar zen lekuan gelditu. Bi atera ziren eta bestea barruan gelditu, bolantean. Potroak bere lekuan jartzen ari zen bat, miaka hasi aurretik, inguruetara begira bestea, ez genien beste ezertarako astirik eman.

Kargadoreak hustutzen ziren erritmo urduri berean egin zuten dantzaz, besoak dardarka, hankak dilindan. Lagunak lurrera jausi aurretik irten zen bestea, bolantekoa, eta eginahala guztian kitarrari ekin. Pipa luzatu, tiro egin eta kopetaren erdi-erdian asmatu nion. Ez ziren alferrikakoak izan entrenamenduetako saiok. Uste bezain erabatekoa ez izan ordea eta arrastaka zebilela sumatu nuen. Harenganaino hurbildu eta metro erdira egin nion beste tiro bat, lepondoan.

Orduan ikusi nuen, furgonetaren ate zabalduetik. Bolanteko aulkia aldamenen zegoen, bi aulkien tartean. Amuleto bat ematen zuen, han erdian jarrita. Arraroa egin zitzaidan. Ez zuen han egoteko arrazoirik. Are gutxiago aspaldi hartan sekulan erabiltzen ez zituztenez, desfileetan edo ez bazen. Ezin izan nion gogoari eutsi: eskua luzatu eta hartu egin nuen.

-Zoratuta hago ala? Utzi ezan hori eta goazeman. Azkar!
--entzun nuen atzean.

Nirñir egiten zuen eguzki errainupean. Haren dizdira beltzak harrapatu egin ninduen, eta eskuan tinko eutsita abiatu nintzen bi lagunen atzetik. Habailan atera ginen, eta ondo urrun egon arte ez zioten erreparatu magalean heramanari.

-Baina zertan...? Bota ezan oraintxe bertan!

-Ez, hobe aurreraxeago, hemen norbaitek ikus lezake eta --esan zion besteak.

Eztabaidan hasi ziren, non uztea komeni zen, eta ni bitartean isilik. Azkenean iritsi eta kotxetik jaitsi ginen hirurok.

-Arrastoak ezabatu eta bota ezan hementxe bertan!

Ezetz esan nion. Sua zerion begietatik. Ukabilak estutzen ari zen.

-Utzak; hor nonbait utziko dik.

Ez regoen asti handirik. Beste kotxe batean aldegin behar zuten biek. Nik berriz, bakarrik joan behar nuen handik aurrera.

-Hi ez hago burutik sano. Horrekin ikusten bahaute galduta gauden. Denok!

Baietz egin nuen buruaz. Horren zain baleude bezala kotxean sartu eta aldean aldegin zuten. Inguruan ez zen inolr ageri. Maldan behera jaitsita azkar iritsiko nintzen etxera. Trikornioa kazadorapean sartu eta atzera begiratu gabe bidean behera egin nuen. ***

Inoiz erabiltzen ez dudak koto batean utzi nuen zintilik. Ohean etzan eta pare-parean ikusten nuen. Argi nagusia itzali, flexoa piztu eta hara zuzendu nuen fokoa. Dizdira bizia egiten zuen, txarolarena baino argiagoa. Gertutik begiratu hatzen aztarnak nabari ziren. Japi zuri bat hartu eta garbi-garbi utzi nuen, berriz ere kakoan ikusgarri jartzeko moduan.

Biharamunean, lanetik bueltan hautsa kentzen ari nintzaiola, ateko txirrina. Zabaltzera joan nintzen.



-Bota al dun? --eta erantzun aurretik barrura sartu zen.

Ez da etxe handia ere eta berehala aurkitu zuen. Hantxe zegoen, ohe gainean, hautsa kentzeko trapuzen ondoan. Bera ere lilurapean nonbait, metro batzuetara gelditu zen, errezeloz begira baina begirik kendu gabe. Momentu batez hitzik egin ezinik, atzean nere pausok sumatu arte.

-Baina... Hi zoratuta hago. Ez al haiz konturatzen... Nola esan behar dinat... Baina...

Etsiak hartuta bezala, galdera bat amaitu ezinik ohean eseri zen. Gero, zeren ondoan jartzen zen konturaturik edo, begira zegokiola altxatu egin zen. Eskuaz atzera eragin zien kopetako ileei.

-Ez al dun ulertzen... --berriz ere begiak ohe gainekora, eskua kopetara; listua irentsi eta hurrena hitz egitean ez zitzaion nabari histeriaren atariko doinu metaliko hori--. Hara: txorradarik gabe hitz egingo dinat. Zera hori egundoko arriskua dun, egundokoa gero. Inork ikusiz gero zuloa hoa, zuloa, eta hire atzetik besteak. Gaur bertan gero, zakarratako poltsan atera behar dun, zerrautsez edo edozein gauzar ondo bilduta, inork ez antzemateko, inork ere ez.

Errepikatze bakoitzean goratzen zuen boza, hasierako lasaitasun badaerpadakoa pixkanaka galduz. Ia oihuka ari zela konturaturik, gelan zehar eraman zuen begirada, gorputza bezala burua pausatzeke zerbaiten bila, atsedean eske. Aulki bakarra oheaz bestalde zegoen, indar eremu batek galerazia.

-Hori ere ez. Ezinezkoa dun. Gauero ibiltzen ditun batzuk zakarrontzietan begira, bizimodua atera behar eta zer aurkituko. Ezin inoiz jakin...

Desagerketaren berri ba ote zekiten galdetu nion.

-Zera jakingo dinat! Irratiz esaka ariko direla uste dun ala?

Ileak erretiratzera jasotako eskuak kopeta hutsa ukitu zuen.

-Ez. Zera egingo dinagu. Gaur gauaz etorriko naun. Ni behean zain egongo naun kotxean eta hi saski batekin edo jaitsi hadi, barruan zera sartuta. Mendian gorde edo errekarara bota edo ikusiko dinagu zer egin. Konforme?

Ez nion ezer esan. Berriz ere patxada galdu zuen, lepoko zainak agerian.

-Agindu egiten dinat. Aditu dun? Agindu. Hamaika t'erdietan etorriko naun eta ez dinat beste txorakeriarik nahi. Hau ez dun txorradetan ibiltzeko tokia.

Doinu apaldu-gotorrak bukatu zuela adierazi nahi zuen. Aterantz egin zuen eta pasatzen uzteko alde batera egin nuen. Gelako ate parean gelditu zen: ohe gainera begiratu, gero heri, eta esan zuen:

Ez dinat ulertzen. Zertan ari haiz?
Ez al haiz konturatzen nola buka
dezakegun denok?
 Zulo batean usteltzen!

-Hau ez dadila sekulan berriro gerta. Sekula santan.

Hamaikak eta bosterako prest nengoen. Telebista piztu eta ezin irudiei kasorik egin. Urduri nengoen. Eseri eta altxa, altxa eta eseri, etxearen metro bakanak behin eta berriz kurritu nituen. Leihora iritsi bakoitzean, kortina alde batera, kalera begiratzen nuen. Eurria. Espaloi bustietan jenderik ez. Aldian behin kotxe bat, faro iheskorren keinada eta besterik ez.

Hamaikak eta hogeitabostean ikusi nuen iristen.

Arineketan kanpazoa hartu, gabardina jantzi eta giltzak patrikan sartuta beheara jo nuen. Atariraino jaitsi eta kotxe-argirik ez: joan egin ote da?, ez ote zen bera? Pareko espaloian aparkatutako kotxean ezagutu nuen, eskuaz deika. Hamar metroko korrika saioa euripean. Argi italiar berri galderka gero.

-Zer nahi dun: auzoak ere jakinean jartzea ala? Hau ez dun txorakerietarako garaia, esan dinat lehen ere. Segurtasuna, aditzen dun?, segurtasuna; orain ez gabiltzan une jolasetan. Ekharri dun?

Kanpazoa begira bera. Baietz nik buruaz. Arrankatu zuen eta ez genuen beste hitzik egin. Ez nekien nora gindoazen. Kotxe gutxi gurutzatu zitzaizkigun; gero eta gutxiago kaleak atzean utzi eta mendia aldera abiatu ahala.

-Orain kontrol bat agertzea besterik ez geninake behar.

Ez zen halakorik izan. Gelditu ginenean leku hura ezagun zela geratu nintzen pentsakak. Ezin ordea zer zen gogoratu.

-Badakin non gauden?

Ezjakintasuna erakutsi zion nere aurpegierak.

-Hobe horrela. Ezer esateko arrisku gutxiago. Horko zulo zahar horretan bota eta inork ez din sekulan aurkituko.

"Zahar" hitzak piztu zidan argia, zuloak huts-hutsean beste zerbait bait zekarren gogora. Mina zaharretan geunden, aspaldi agortutako meatzean.

-Emaidan. Neronek botako dinat.

Kanpazoa hartzeko luzatu zuen eskua. Nik ordea tinko eusten nien helduleku biei.

-Bueno, bueno. Ez dinat lapurtuko. Goazeman biok, nahi badun.

Kotxetik atera eta gogorrago ari zuen zaparrada. Hala ere pausoa joan ginen biok, elkarren ondoan, bata bestearen zelatan bezala. Ez genuen hitzik egin meazuloaren sarrerak osatzen zuen atzerapean iritsi arte.

-Blai aginda gauden, e? --patrikatik linterna bat atera eta piztu egin zuen-. Aurreraxeago zegoen zuloa. Goazeman.

Linternak argitzen zuen zoruak, non zapaldu behar zen eta non zeuden harriak. Hala ere estrapozo egin nuen erortzean eta burrukoa ere klin klan klan joan zen harri koskorretan saltoka.

-Zertan haiz? --linternaren argia nere gorputz gainean-. Ez dun ba zauririk izango?

Zutitu orduko lurrera jausitakoa jaso nahi nuen. Eskua luzatu ahala kanpazoa hartatu nuen, baina burrukoa? Itsumustuan hasi nintzen bila. Beste esku bat ni baino bizkorrago ibili ordea.

-Zer da hau? --esan zuen periodiko paperetan bildutako lapikoa zuela esku batean-. Zer dun hau? --oihuka.

Linternaren argia lapikotik nere aurpegira eramaten zuen. Nere aurpegitik lapikora.

-Hau bota nahi huen zulotik beheara? Lapiko hau?

Buila gero eta ozenagoan, aidean jaurti zuen lapikoa. Geroko oihuen oihartzuna izan zen kinki kanka

errepikatua, linterna ere gero eta hurbilago zetorkidala, begi aurrean geratu arte ia.

-Baina zer uste dun hik? Jolasean gabiltzala ala?

Badakin zer egin beharko nukeen? Hi heu bota zulotik beheara, lapikoa bezala.

Ezin nuen ikusi, baina eskua kopetako ileak erretiratzen imajinatu nuen. Ahotsa ere mantsoago irten zitzaion gero.

-Hi zoraturta hago, zoraturta. Eta besteak ere zoratu egingo gaitun. Goazeman. Hobe dinagu hemendik lehenbailehen aldegitela.

Linterna aurrerantz zuzendu eta irteerantz jo zuen lasterka. Atzetik segitu nion, behartoei nola hala antzemanen. Atzera begiratu gabe hitzegiten zuen.

-Ez dinat ulertzen. Zertan ari haiz? Ez al haiz konturatzen nola buka dezakegun denok? Zulo batean usteltzen!

Azken hori kanpora ailegatzean esan zuen, borgoran eta zuzen begiratzen zidala. Berriro eramanean zuen eskua kopetara. Pentsakor geratu zen momentu bater. Jadanik ez zuen euririk ari, kilker hotsak aditzen ziren.

-Aditu ondo zer egin behar dugun. Hire etxera joango gaitun, trikornio zikin hori hartuko dinagu eta behin-betiko desagertaraziko dinagu. Emaizkidan etxeko giltzak.

Isiltasuna tximeleta bat bezala pausatu zen bion artean eta berriro eman hegaderi.

-Emaizkidan etxeko giltzak.

Hitzik ez, nik.

-Giltzak emateko, kaben sos!

Kopeta gainera eroritako ileak atzera eramatea ahaztuta, bere onetik atera zuen nere mututasunak. Linterna erortzen utzi eta gabardina paparretik heldu zidan. Lurrera erori ginen biok eta putzuen gainean ibili ginen txilipurdika. Argirik ez eta kolpea asmatzeko bertatik helduta eduki behar laguna. Burruka saio hark maitaleen ekinaldia irudi zezakeen urrundik. Huts egindako ekina harentzat, biok izerditan eta lohiturik bukatu arren ez bait zizkidan giltzak kendu.

-Txoraa, txoraa! --esan zidan goraki, burrukaldi osoan ahapeka bezala.

Argiegi ikusten ez banuen ere kotxerantz zihoala sumatu nuen. Bertan sartu, motorra martxan jarri eta leihatila irekitik hitz egin zidan hurrena.

-Hementxe uzten haut, txoraa! Egiztan nahi dunan gaizto. Hor konpon, txoraa, txoro ez bestena!

Lurrean piztuta zegoen linterna ez dakit ahaztuta edo nahita utzi zidan. Mesede galanta egin zidan behintzat, bere kaxkarrean. Kanpazoa hutsa ere hartu eta bideari ekin nion. Erlojuari begiratu nion: hamabiak eta laurden jota. Ezin jakin zenbat denbora beharko nuen etxera iristen, bidearekin asmatzen banuen behintzat. Tarteka ilargia agertzen zen, baina bide gehiena lanbropean egin nuen. Eta oraindik ere beste behin estropozo egin nuen, linternarekin joan arren.

Halako batean argia ikusi nuen nere bidetik aparte. Zer izango eta hura jo nuen; hiruzpalau hesi, belardi bat, patatena edo izan zitekeen soro bat eta beste bat erremolatxa edo arbiara pasatu ondoren konturatu nintzen hura joateko ere bazela bidea. Baita ere aurrea baserri ueste nuena beste zerbait zela, hango argia eta buila eta... Sagardotegi bat edo, pentsatu nuen. Putetxe bat, ohartu nintzen hurbildu eta errotuluei erreparatu ahala.

Sarrera gogoangarria izan zen benetan. Ez al nuen atea

zabald, aurrena bat gero bestea, barruan zeuden guztiak atzera jiratu eta neri begira geratu ziren. Lehenengo iji-aja eta berriketa alaiak ere emetu egin ziren eta berehala itzali; Tina Turnerren ahots indartsua izan zen segundu batzuek bertako errege, We don't need another hero, baina horri ere bolumenta kendu zion esku ezkutu batek.

-Baina zer egin dizute polit horri?

Mostradore atzetik 50 urteko atso bat ateratzen zela. Gizena zen, aurpegia pinta-pinta eginda zeraman, errepeak erdi agerian estutzen zizkion eskote ikaragarria eta ibilian zebilela tin-tin egiten zuten idunek, pultsera eta pitxia ugari. Putetxeko etxeoandrea iruditu zitzaidan.

-Maitea baina... Gaxo hori... Gizon batzuk zerri hutsak dira --esan zuen bertako bezeroei mintzatuz--, zerri nazkagarriak! Neska bati holakorik egitea ere... Bi mila duro gastatzeko gauza ez direlako.

Orduan konturatu nintzen. Bortxatu edo egin nindutela usteko zuen. Ez zen harritzekoa ere, ordu eta leku hartan eta nere piura ikusita: dena lokaztuta, blai eginda, arropak urratuta, gero konturatu nintzenek masailak eta kopeta ere odoloduta.

-Zer egiten duzue denok begira, zozo halakook? Ez al duzue beste zereginik? Altxa musika hori, hau ez da ospitale bat eta!

Kanpazoa kendu zidan eskutik, besoaz sorbaldak inguratuz poliki hitz egiten zidala.

-Zatoz maitea, gaixoa... Zatoz, polit hori.

Mostradore atzeko gela batera eramanez ninduen. Aurpegia garbitu. Besaulki batean esererazi. Gabardina bustia kendu. Oinetakoak ere bai. Estufa bat jarri aurrean.

-Onena arropa dena kentzea izango duzu, bestela pulmonia harrapatuko duzu. Nik ekarriko dizkizut beste batzuk, garbiak. Ezetz egiten nion nik buruaz.

-Ez? Ezetz? Aizu, ez dizkizut zereko arropa horietakoak ekarriko, badituz bestelakoak ere.

Ezetz esaten segitu nuen.

-Zer nahi duzu ba? Nahi duzu kafe bat? Kofaka? Kamazila? Laranja zumoa? Ai maitea, gizon guztiak igualak dira: nazkagarri hutsak. Baina pasako da; dena pasako da maitea, zaude lasai. Ospitalera deitu nahi duzu? Hementxe daukagu telefonoa. Poliziari deitu nahi al diozu? Ez digu mesede handirik egingo baina nahi baduzu... Etxekoei? Zure zain egongo dira akaso. Nahi duzu nik deitzea? Gauza sentitzen ez bazara neronek deituko diet, lasaitzearren...

Telefonoa uzteko eskatu nion, eta kafe bat, mesedez.

-Oraintxe, maitea. Mutua zinela pentsatzen hasita nengoen.

Aurkitegian begiratu eta taxien telefonoa bilatu nuen. Deitu dut, hartu dute, taxi bat bidaltzeko eskatu dut eta nora? Galdetu zutenean konturatu nintzen ez nekiela. Kafearekin zetorkidan etxeoandreari galdetu nion.

-Club Venus. Martitxipiko bidea.

Kafea hartzen ari nintzela parean eseri zitzaidan. Esku gaina ukitzen zidan azkabal gorri luzearen muturraz, eskua estutzeko herabe nonbait.

-Ez zegoen taxi bati deitu beharrik. Hementxe edozeinek eramango zintuen. Nik ez, ez dakidalako, eta gainera hemen egon beharra daukat, badakizu. Baina hemen ibiltzen diren asko etxeok bezalakok ditugu, zera, konfidantzazkoak.

Eskerrak eman nizkion, baina ez zegoela beharrik.

-Ulertzen dizut, bai. Zuk pasatu dituzunak pasatu eta

gero. Nik ere, orain ez baina garai batean...

Berriketan aritu zitzaidan, bere bizitzako pasadizoak kontari. Taxia iritsi zenean gabardina ekarri zidan eta oinetakoak, barruan periodiko paperak sartuta, lehortzeko.

-Dirurik ba al duzu, taxirako eta?

Baiez nik. Ateraino lagundu ninduen, clubeko gela nagusitik pasatu beharrik gabe.

-Bueno, orduan agur, eta ondo izan. Behar izanez gero badakizu non gauden. Bueno, zu bezalakorik ez da hemen agertzen noski, baina bueno, zera, lagun bat duzula hemen.

Malko batek rimela urtu eta belztu egin zion masaila. Muxu eman nion bestean eta taxian sartu. Taxistak zorionez ez zidan ezer galdetu. Zer puta klase ote nintzen pentsaka joango zen seguraski, kanpazoa zahar eta gabardina zikin harekin. Ordubiak eta hogeitabost ziren etxera iritsi nintzenean. Triakornioa hantxe neukan, zain.

Iratzargailurik jarri gabe oheratu eta berandu arte egon nintzen lotan. Esmatutakoan lantokira deitu nuen, gaizki nengoela eta ezin nintzela joan. Bainuontzia ur berot betetzen utzi nuen. Logelara joan eta triakornioa hartu nuen. Bainugelara itzuli. Buruan nola egokitzen zitzaidan probatu nuen. Dizdira beltzak nere kopeta gainean. Ispiluari begira, erantzi egin nintzen, poliki, gorputz osoa nuen baino minberago bainuen, bainuontziak betetzen segitzen zuen bitartean. Uretan sartu ahala nekea eta akidura guztia urtu egiten zitzaizkidalda sentitzen nuen, ertzetatik gainezka egitearekin bat.

Hantxe egon nintzen, geldirik, triakornioa burutik kendu, urrez bete eta berriro buru gainean jantzi beste lanik ez nuela. Bienbitartean telefonotxirrira ere aditu nuen. Bost axola. Bainuontziko ura hoztuta sumatu arte ez nintzen bertatik atera.

Hurrena atean entzun nuen deia. Esku artekoa arnairu barruan gorde nuen badaezpada. Bata ere itxi egin nuen atea zabaltzeko.

-Hemen al hintzenan? Kosta zaidan, kosta zaidanez.

Ez nion eskatu baina barrura sartu zen. Ez zuen bezperako histeriarik baina serio zekarren begitartea.

-Nola etorri hintzen atzo? Hire bila itzuli nindunan eta ikusi ez.

Irribarreia izan zuen erantzun.

-Gaur berriz lantokira deitu eta ez hengoela. Hona deitu eta erantzunik ez. Larritzen hasita nengon.

Ez nekiela aitortu nion negatik hain kezkatutik zebilenik.

-Ez da zugatik. Gu guztiongatik da, eta ulertuko duzu zergatik.

Hasieran ulertu ez nuena zukara igarotze hori izan zen, baina laister jakin nuen horren berri ere.

-Non da?

Zer? galdetzekotan egon nintzen, baina ez zuen ematen jostaketarako gogorik zuenik. Bota egin nuela esan nion.

-Benetan?

Isilik geratu zen. Ez zuen sinistu noski, baina bazirudien etxe osoa hankaz gora arakatzen hasi edo ez ari zela erabakitzen. Hala iruditu zitzaidan behintzat, haren ukabil estutuetan, ezpainetako dardar emearen artegatasunean.

-Gure artean aritu gara hizketan, eta erabaki bat hartu dugu --geldiune labor bat egin zuen, arnasa hartzeko lain--: erakundetik kanpo zaude.

Nere erantzunaren edo protestaren zain gelditu bide zen.

nuen ezer esan eta berak segitu zuen hizketan, arrazoiketan.

-Ez duzu bertan aritzeko behar bezalako seriotasunik, diziplinarik. Denontzako arriskua zara, arrisku bizia. Horregatik bidaltzen zaitugu. Emaidazu zeure pipa.

Bainugelara joan nintzen. Bera atzetik. Armairu gainetik bentosa pare bat atera nuen. Azuleiu batean itsasi eta atera egin nuen. Hantxe neukan pipa, plastikozko xorro batean sartuta. Eskuan hartu eta berari eman nion. Kargadoreari begiratu ondoren praka gerri aldean sartu zuen, jertseaz estalita. Bainuontziaren kantoian eseri zen.

-Egia esan, kanpoan geratuta ere arriskugarri izaten segitzen duzu. Gauza asko dakizu, gehiegi. Akaso alde egitea izango zenuke onena; baina ezin jakin: beharbada norekin ibiltzen zinen eta hasiko lirateke begira. Eta beste aldean gauzak dauden bezala egonda...

Bere oinetara begiratu zuen. Eskuaz atzeratu zituen kopetako ileak.

-Saia zaitetz behintzat txorakeriarik ez egiten. Eta ikusi duzun guztia ahaztu. Adibidez, horko txulo hori, masaz lehenbailehen estaltzea litzateke onena. Gainerantzean... ez al da okerrrik gertatuko.

Altxatu egin zen eta aterako bidea hartu. Atzetik segitu nion. Atea zabaldu aurretik jiratu zen azkenik.

-Badakizu. Dena ahaztu.: kaletik besterik ez nauzu ezagutzen. Ez duzu ezer ikusi. Ez duzu ezer egin. Eta... --listua irentsi zuen--. Eta trikornio zahar hori bota ezazu; urruti, mesedez.

Agurtu gabe aldegin zuen, berehalaxe itzultzeko edo sekulan ez azaltzeko asmoa dutenak bezala.

Denbora luzea iragan zen. Bitartean atxilotetaren bat gertatu zen inguruan eta ihesketa batzuk ere bai, nere kide izandako bienak. Neroni ere alde egitekotan egon nintzen, baina gero pentsatu nuen ezagutzen nindutenek ospa egin bazuten ez nuela zertan kezkatu eta hobe nuela nengoen bezala gelditu.

Hala bada, betiko bizimoduarekin segitu nuen; gutxi ateratzen nintzen etxetik, garai batean baino gutxiago, eta ez nuen kanpoko inor hartzen, inoiz edo behin ama edo ahizparen bat edo etortzen ez bazen bisitan. Horrelakoetan armairu bateko kanto batean izkutatu ohi nuen trikornioa, gainean arropak pilatuta.

Osterantzean, betiko kakoan izaten nuen. Lehenengo egunean bezala, flexoaren argia zuzentzen nion eta ohetik etzanda txapa beltzaren diridiri begira egoten nintzen. Beste batzuetan ni neu nintzen flexoaren jomugan jartzen nintzena, eta kaskoa buru gainean sartuta kabaret bateko izarra sentitzen nintzen, danza-pauso arrote batzuk eginez. Beste askotan trikornioa jantzi eta etxe osoan barrena paseatzen ibiltzen nintzen, batetik bestera, ispilu guztiei begira, biluzik edo arropa batzuk orain beste batzuk gero aldatu eta probatuz, modako pasarela edo mozorro festa batean bezala.

Halako batean ihauteriak iritsi ziren, eta tregua garaian egokitu. Aspaldiko urteetan ez nuen mozorrotzeko ohiturarik; festarako ere gogo gutxi. Harakoan ordea, halako grina batek hartu ninduen. Mozorrotuta atera nahi nuen kalera, gau batez bederen, nere guztizko maskaradan. Denda batean erosi nuen oihala eta amari eraman, zer eta nola nahi nuen josteko. Behar nituen gainerako apaingarriak han-hemen lortu nituen.



Lagunek deitu zidaten, festara atera behar nuen galdezka. Ezetz esan nien. Bakarka ibili nahi nuen. Arratsalde osoa neraman probaketak eta ukituak egiten, eta gaua hasterako guztiz gertu neukan nere guardia zibil jakia. Bibotea eta betaurreko beltzak erantsi nizkion. Chapeau.

Agi denez, arrakasta itzela izan nuen gisa hartan jantzita. Jende gehiena begira geratzen zitzaidan barre ttikiak eginez, kalean gora eta behera mozorro asko ibili arren. Neskato-mutikoek seinalatu egiten ninduten eta batzuetan gurasoren bat izaten zen, atzamarrez ni erakutsi eta eskutik zeraman umeari zer edo zer esaten ziona. Mozorrak edo txantxetan zebiltzan koadrilak hurbildu egiten zitzaizkidan, inguratu eta txorakeriatan hasten zitzaizkidan. Nik purrustada bat erantzuten nien, metraileta ateratzeko keinua egin, eta lehen baino algara handiagoz alde egiten zuten.

Zorionez, inork ez ninduen ezagutu. Ez nuen hitzik egin nahi, emakumea nintzenik ere inor ez konturatzeko. Ibileran behintzat ez zidaten antzemango, hilabeteak bainaramatzen neure etxean gora eta behera ensaiatzen, eta kapotean bilduta nidoanez geroztik askoz borobilago. Txiki samarra suertatzen nintzela, hori bakarrik, baina guardia zibil asko ere ez dira askoz altuagoak.

Kalean ibiltzen aspertutakoan tabernaren batera sartzen nintzen. Guardia zibilek zer edaten duten jakin ez eta ardoa eskatzen nuen, gizonetako bat lakarra jartzen saiatuz; bestela, ondokoren batek zuen edalontzia seinalatzen nuen, mutu.

Ez dakit zenbatgarrena izango nuen. Pub batean sartu nintzen. Jender gainezka zegoen, asko dantran, beste asko builan albokoari zerbait esan nahian. George Michael bafleetatik I want your sex. Bultzaka eta kostata hurbildu nintzen mostradorerantz. Errespeturik ez uniformeari. Aurrera egin ahala zehar begiratu gehiago, nigandik mostradoreko beste aldera. Zinkaren kontra iritsi nintzenean konturatu nintzen zergatik. Hantxe zegoen, sevillanaz jantzita, kamareroari deiadarka "Oye, pon una de seviyana, macho". Herriko guardia zibiletako bat zen, ezagutzen nuen.

Manifestazioetatik eta. Tregua hasi zenetik lasai-lasai eta harro asko hasi ziren irteten koartelek. Sarjentoa bere señoarekin kale nagusitik paseatzen. Koadrilak arratsalde baxoerdiak hartzen. Senar-emazteak larunbat arratsaldez hiperrean erosketak egiten. Narkagarria.

-Compañero, compadre, colega!

Ikusi eta neregana zetorren, erremediorik gabe.

Sorbaldeetatik heldu zidan.

-Pero qué bebe? vino? Un guardia sivi bebe siempre güiski, aunque sea un guardia sivi disfrasáo. No vaya' a jodé el honó del cuerpo!

Eta barreari eman zion, algaraka. Neretzako whiskia eskatu zion kamareroari, eta "pon una de seviyana, oye". Lehenengoari kaso egin zion, bigarrenari ez.

-Oye macho --esan zidan--, saca la pipa a ve si t'hase ma' caso qu'a mí.

Gero kantari hasi zen, bera bakarrik, a bailá, a bailá, a bailá, alegre seviyaana, txalo zartaka eta zapata takoei txinpartak atera nahian. Metro bateko ingurua libre utzi zion jendeak baina dantzari kaxkarra izan: estropozo egin eta txonkatila erdi bihurrituta kexaka hasi zen: "Ay mi mare, ay mi mare", barre txoroari emateko berriro gero.

-Vámono a otro bar, macho --esan zidan.

Ni izan nintzen oraingoan sorbaldeetatik heldu behar izan niona. Berehala pasatu zitzaizkion minak ordea eta kantari hasi zen beste behin: a bailá, a bailá, a bailá, alegre seviyaana. Beste taberna batean sartu ginen. Beste batean ere bai. Hirugarren batean. Denetan eskatu zuen whiskia biontzat. Ordaindu gabe uzten zuen. Denetan eskatzen zuen "oye tú, pon una de seviyaana" eta hirugarrenean kaso egin zioten: a bailá, a bailá, a bailá, alegre seviyaana. Hirugarrenko horretan, aldegin behar genuenean gogorarazi zion kamarerak ordaindu gabe gindoazela.

-Qué te cree' tú, tía, que la guardia sivi no paga? Que no paga? La guardia sivi paga y pega --eta algaraka aldegetin genuela bost milakoa bota zuen mostradore aldera.

Horrela eman genuen gau osoa, tabernarik taberna. Nik ez nuen hitzik esaten, berak esandakoari komeni zenean baietz eta bestela ezetz egin besterik ez. Eta bera ere pozik horrela, ez bait zen isiltzen. Sartu ginen bigarren tabernan "mi sargento" hasi zitzaidan deitzen. Gero "mi teniente", "mi capitán", "mi coronel" eta taberna gehienak ixten ari ziren ordu txikietan, "mi general" nintzen ordurako.

-E'cuhe, mi general: e'to va'co son to uno hijo de perra.

Nik baietz.

-Y manque ahora van de corderito y se hasen lo bueno yo no me fio ni un pelo. Porque yo no tengo un pelo de tonto --eta ileordea kenduta buru soildua erakutsi zidan, barrez lehertzen.

Gero beste aldetik jo zion mozkorraizeak: euskaldunak ulertzen gintuela, arrazoi genuela, ondo egiten genuela gobernuari gogor emanda baina bera "un mandao" besterik ez zela eta holakoak. Biak kristoren melokotoiarekin gindoazen eta erdiak ere ez nikion ulertzen. Berak ere auskalo ba ote zekien zer esaten zuen.

Taberna quztiak itxita zeuden. Kalean gonbitoak eta confettiak nahasian, gautxori bakanak etxeratzen. Egunsenti hurbila sumatzen zen ekialdetik eta goiz albako haize hotzak hezurretarainoko ebakiak egiten zizkizun. Guardia zibilari ordea argitasun jaio berri hark indarrak ematen zizkion nonbait; hiri bazterrerantz eramana ninduen, fabrika itxiak dauden aldera, eta bidean geldierazita builaka hasi zitzaida bapatean.

-Que si yo yego a ser va'co me meto a la ETA y a pegar tiro, meagoen lavirgen.

Eta segidan saltoka eta deiadarka, orroak fabrika porrokatuei zuzenduko balizkie bezala, bere ahoskera bereziaz:

-Gora ETA militarra! Txakurra barrura, presoak kalera, amnistia osoa! PSOE, GAL berdin da! Guardia civil, jo ta bertan hil! Gora ETA mili-ta-rra! Gora ETA mili-ta-rra!

36-GOIERRITARRA

Azken hori zuen kuttunena. Errepikatuena bai behintzat. Gero berriz, hasi bezain bapatean isildu, irribarre maltzur bat egin, eta kapotearen paparretik helduta hitz egin zidan, whisky hatsa mutur aurrean:

-Que me la sé toa', macho. Que uno yeva aquí mogoyón de año, y a e'te paso voa durá ma'que lo de la ETA y to vosotros, casho cabrone, que o tengo bien junao'.

Gero eta bortitzago astintzen ninduen eta eragite horretan titiak ukitzen zizkidala ohartu zen. Aho zabalik geratu zen une batez, leloturik.

-Pero si e una tía, la muy sorra. Pero a mí no m'engaña, manque te vi'ta de Casineyo, cacho puta, peyejera, verá lo que te voa da.

Hitz egin ahala berotuz zihoan, sudur inguruak izerditan. Faralae soinekoa altxatu zuen bapatean eta galtzontzilo parean gerrikoa agertu zen, bere piparekin. Pipa atera eta muturren aurrean jarri zidan, segurua kenduta, beste eskuaz paparretik heltzen zidala.

-Qué te creía? Que te iba a descojoná o qué? De mí no se rie ni mi pare, me oye, ni mi pare!

Igurzketan hasi zitzaidan, pipa askatu gabe, beste eskua titietan, ipurdira, hankartera eramanez, ahots dardartiz, lerdetario hizketan:

-Ya verá la que te voa meté; te va a da un gu'to que no mea en una semana; ya se lo puede ir contando a toa la puta d'achebé.

Eta orduan eztulka hasi zen indar batean. Eztul eta eztul makurtu egin zen, eta txahala botatzen hasi zen berehala, begiak zuri eta besoak sabel parean gurutzatuta zeuzkala. Burnia kendu nion eskutik. Begi harrituekin begiratu zidan ahoa oraindik zabaldua zeukala, eta luze pentsatu gabe pipa muturra ahoan sartu eta tiro egin nuen.

Sekulako eztanda egin zuen eta kraskatzen zen zerbaiten zirrara iritsi zitzaidan eskuraino. Gorputza balantzian geratu zitzaion une batez, atzera-aurrera, eta bultzada emea egin nion sorbaldan. Bide bazterreko ezpondan geratu zen erorita, begiak zabal-zabal, odola ahotik borborka. Buruan ere izugarritzko zuloa egin zion, ileordea ere odolez blai utzi ziona. Pipa ahoan sartuta utzi nahi nion, baina hura ez zen itxuragabeko zuloa baizik, ez hortzik ez masaillezurrik. Zipristinak nonnahi. Nere hatz markak ezabatu eta bere eskuan utzi nuen burnia. Triakornioa ere burutik kendu eta berean jarri nahi nuen, baina ileorde okertu odoldu haren gainean arlote geratuko zen. Magalean utzi nion azkenik: askoz dotoreago ematen zion, propioago.

Nik ere bota nuen txahala, etxera iritsitakoan. Erantzit gabe etzan nitzen ohean eta berehala lo seko geratu. Biharamunean esnatzean, egundoko ajea. Aspirina pare bat hartu eta bainuontzia ur berotz betetzen utzi nuen. Arropak kendu eta zabor poltsan sartu nituen. Irratia piztu nuen. Uretan sartzen ari nintzela guardi zibil baten heriotzari buruzko zer edo zer entzun nuen. Ez zegoela garbi suizidioa ote zen. Baztertu egiten omen ziren arrazoi politikoak.

Xabier Mendiguren ●

LAN KIDE AURREZKIA  EUSKADIKO KUTXA


190
Sukurtsal

164
Kooperatiba
Elkartu

20.000
Lanpostua

230.000
Milioiko Aurrezkia

**Euskadiko
Kutxa**



LAGUN ARO
SEGUROS **ASEGURUAK**

Nafarroa Etorbidea, 27 — Telefonoa: 88 62 50 / 88 31 00
B E A S A I N

Gizartearen izarra

I

Jaio zenean denen gustoko
izan zen haur eder hura
ez zitzaizkion pertsona gutxi
bere ondora ingura,
denek zioten -zer polita da
dauka amaren itxura-
lehenengo hitzak entzun zituen
ume gehienek modura
batek zionez izar argi bat
berri sortu zen mundura.

II

Urte batzuek pasa zituen
amaren beso artean
gurasoen pitxi polita
hiru edo lau urtean,
uste baino lehen aurkitu ziran
ikastolako atean
bi muxu eman zizkion amak
gela barrura joatean
izar argia sartzen hasi zen
gizartearen katean.

III

Gelako izar argia bera
haundienaren dizdira
eseri eta ez zen egongo
inoiz euliei begira,
mailak ederki pasa zituen
lehenbizikotik zortzira
denen esanez, -«haurrak behar dun
azkartasuna hori da
bere antzeko izarrek beti
urruti iristen dira»-.

IV

«Noraino noa eta nola noa?»-
betiko galdera hori
baita ikasi mundu osoko
ez dakit zenbat istori,
arreta asko liburuari
eta maixu hitzunari
munduak zorrik ez diolako
saiatu nahi ez danari
mila helmuga jarri zizkion
bizimodu astunari.

V

Hamalau urte bete zituen
irabazle bat izanez
denen gainetik jo nahi zuena
-«balio bait dut»- esanez,
gorputz argala, ilez rubio
inon akatsik izan ez
kirolak ere maite zituen
osasun zalea zanez
fruta ta yogurra jaten zituen
«Insalus» ura edanez.

VI

Asteburutan jazen zituen
bere aldiko erropak
diskotekarik ederrenean
edaten zituen kopak,
ligatzen zitun morena onak
eta rubia guapak
horrela ahaztuz gelan zituen
liburuak eta mapak
ta batez ere bizimoduak
jartzen zizkion aldapak.

VII

Nahiz egun denak berdinak izan
dena zen beharrezkoa
mutil fina zen zintzotan zintzo
eta dotore askoa,
ikasketetan bera lehena
hura iturri preskoa
moto haundi bat ere bazuen
galestiena kaskoa
bere kalean deitzen zioten
«niño pijo» urrezkoa.

VIII

Gerra beretzat bakarrik zen
zoro batzuen burruka
langabeziaz esaten zuen
-«Nik ez daukat horren kulp»-
presoen alde norbait kalean
zebilenean oihuka,
esango zuen egin duenak
zerbait ordaintzea dauka
lekzio dena ikasi zuen
hau ezin daiteke uka.

IX

Etxean ere beti ixilik
aingeru bat zirudien
agindutako denak gainera
pozik betetzen zituen,
kanpotik inor zetorrenean
jarrera formala zuen
ama laztanak esango zuen
inork galdetu baino lehen
-«Seme jator bat da «Pedro Mari»
eta ezagutu nor den»-.

X

Karrera ondo bukatu zuen
gero joan zen soldadu
ia astero bere etxera
idazten daki ondradu,
bere etxeko ama bezala
kezka batekin gaude gu
han ere lortu nahi dituela
kapitanak hainbat gradu
«Cetme» batekin Loiolan dago
inork ikusi nahi badu.


XI

Nik zer izan den esan dizuet
baina ez dakit gerora
berak pentsatzen duen hainbeste
igoko ote den gora,
lan bat aurkitu, neskatxa formal
batekin ezkonduko da
bere antzeko izar argiak
sortuko ditu ondora
bere ametsa dirutza hutsa
baina inoiz ez gustora.

XII

Gorroto ditut izar haundiak
argiak eta prestuak
gorroto ditut munduak ditun
kate zorrotz ta estuak,
karga ezi dut eraman eta
nekatu zaizkit eskuak
Pedro Mariren antzeko izar
asko badaude piztuak
beste hainbeste ikusten ditut
gizarte honek ahaztuak.

Xabier Nabarte



GABIONA

Errodamentuak, S.A. ..

F.A.G. eta G.P.Z.en banatzailea

Biltegi eta Bulegoak: GOIERRI KALEA, z/g.

Tfnoa: 88 45 00

Fax: 88 99 06

20240 ORDIZIA

DIETETIKA - SENDA BELARRAK

O S A K I

Elosegi Kalea

Tfnoa: 88 93 62

LAZKAO

Oriamendi Kalea, z/g.

Tfnoa: 88 79 46

BEASAIN



GM

IRVROK S.L.
ZERBITZU OFIZIALA



N-1 Madrid-Irun Errepidea

Tfnoak: 88 51 50 - 88 51 54

ORDIZIA

Bilore

TAPIZ ETA GAINETZADURA
TAILERRA

BiOK, C.B.



Zoruetako moketak, parketak, zintasola, e.a.

Ezkiaga Etorbidea, z/g.

Tfnoak: 88 80 22 - 88 79 17

BEASAIN



Santa Maria, 8 - Tel. 881211 - ORDIZIA

TOYOTA
EUSKO-NIPON, S.A.

TOYOTA COROLLA BERRIA



Katea Hauzoa.

Apartado 51 - Tel. 884238

20200 BEASAIN



KEMEN, TAILERRAK
AGENTZI OFIZIALA

Alfa Romeo



Nafarroa Etorbidea, 53

Tfnoa: 88 52 00

20200 BEASAIN

GOIERRITARRA

GOIERRITARRA HILABETEKARIA. Goierriko euskaldunon aldizkaria. Harrikada ondorengo uda



Honelaxe gabiltza goierritartxook: a-lo-loko bizikletalapurrak bezala!
Hau duzue gure erredakzioa eta errepartoan berriz, moto-
txiki-txarrari gurditxo bat akoplatu eta kalerik-kale beharko
ibili! Orterak omen gara gero!
Ez ote da kupiratuko anima bihotzberaren bat errukarriotaz?!



«Goierritarrak»
Kultur Elkartea

